

**ARBIASKA**  
**ANGIOZARKO HERRI ESKOLAKO**  
**GURASO ELKARTEA**



**ESKOLA BERRIZTEN**

**Angiozarko Guraso Elkarte**

**2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteak**

### Sarrera:

Eskola Txikien izaera berezia dela eta, Angiozarko herri eskolako gurasook betidanik landu behar izan ditugu eskolaren ingurumariari lotutako proiektuak. Proiektu hauek, orokorrean, eskolako azpiegiturak hobetzera, jangela, erabilera anitzeko gela (psikomotrizitatea, antzerkia, proiektzio gunea ...) edo eskolaren izaerari lotuta dauden kostu erantsiak diruz laguntzeko diru-iturriak jorratzera bideratu izan dira.



Eskolako azpiegituren hobetzearekin lotutako proiektu bat aurkezten da jarraian. Garbi daukagu guraso elkartetik eskola guztiok egiten dugula; Irakasleez gain, eskola komunitate osoaren parte hartzea ezinbestekoa dela sinesten dugu eta ondorioz horrela lan egiteko aukera egiten dugu. Aurretik ere azpiegituren alorrean guraso elkartetik hainbat ekimen burutu dira eta ekimen arrakastatsuak izanik, oraingoan ere ildo horretatik eskolako espazioak egokitu eta berritzea erabaki dugu. Horretarako, guraso, senitarteko (anai-arreba, aitona-amona ...) eta herritarren arteko interakzioa beharrezkoa den proiektua diseinatu eta gauzatzeari ekin diogu.

Argitu beharko genuke, gure eskolako espazioak baduela ezaugarri berezi bat. Izan ere, eskolako espazioa herriak ere erabiltzen du eskola orduetatik kanpo. Horrela bada, berorren egokitzapena ez da soilik eskolako agenteen kontua, herriarena ere bada. Horregatik, hemen aurkezten den proiektu hau auzolanean oinarritzen den proiektu bat da.

Aurretik ere esan dugu sinesten dugula eskola guztiok egiten dugula. Garbi daukagu ezin gara zain egon besteek gure nahiak beteko dituztenaren zain, are gutxiago bizi garen garai honetan.



Zer esan nahi dugu honekin? Eskolako espazioak egokitzeko eta berritzeko beharra badaukate eskaera egin genezake administraziora eta zain egon eskaera bete arte, baina, horrek denbora luze joko lukeela oso kontziente gara, eta gure haurrak orain daude eskolan eta orain behar dute eskolako espazioa erabili. Beraz, beharra identifikatu ondoren, bideak eraiki, aukerak ikusi eta lanean jartzea dagokigu.

Jarraian aurkezten dugu 2011-2012 ikasturtean hasitako lana eta 2012-2013an daukagun jarraipen asmoa. Jakinik, hau ez dela hemen amaituko eta hurrengo ikasturtean ere etorriko dela egitekoren bat.

### **Proiektuaren izena:**

Eskola berritzen

### **Helburua orokorrak:**

- Angiozarko eskolako hezkuntza komunitateak (irakasle, ikasle, guraso, udal, auzotar ...) elkarlanean eskolako espazioak zaindu eta hobetu.
- Angiozarko eskolako hezkuntza komunitatea osatzen duten kideen arteko harremanak indartu eta elkarmenpekotasun positiboa sortu.
- Auzo lanaren balio positiboa belaunaldi berriei erakutsi.
- Gure haurren hezkuntza kalitatean eragina duen espazioa egokitzea baliabideen optimizazioa bilatu.

### **Helburua zehatza ikasturteka:**

- 2011-2012 ikasturtean Haur Hezkuntzako gela dagoen erabilera anitzeko gela egokitu.
- 2012-2013 ikasturtean Lehen Hezkuntzako gela berrantolatu eta margotu.

### **Partaideak:**

- Eskolako familia eta irakasleak, Bergarako udala, Angiozarko herria.

### **Deskribapena:**

Sarreran aipatu bezala, proiektu honetan gure eskola egokitu eta berritu nahi dugu. Angiozarko eskola bi espaziotan banatzen da. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako gela eta zuzendaritza kokatuta dagoen espazioa dugu eta, bestetik, Haur Hezkuntzako gela daukagu. Azken gela hau, baina, ez da soilik eskolaren erabilerarako. Herriak ere erabiltzen du beste ekintza batzuk burutzeko, besteak beste: ludoteka, esku lanak, liburutegia. Orain arte, erabilerak "zaitu" egiten zuen espazioa: HHk erabiltzen zuen txokoa, jangelakoa, helduentzako mahaiak... Auzolanaren helburu nagusia gela osoari erabilera ematea izan da, bi espazio nagusi zehatzuz: haurren aldea (HH-jangela-ludoteka-haur liburutegia) eta gazte eta helduen aldea (gazte eta helduen liburutegia-eskulanak-bilerak)

### **Proiektuaren Faseak:**

1. FASEA: 2011-2012 Haur Hezkuntzako gela dagoen erabilera anitzeko gela egokitzea. Honetarako eman diren urratsak:
  - a. Espazioa aztertu eta espazioaren erabiltzaile desberdinekin antolaketa berria egituratu.
  - b. Udalari proiektua aurkeztu eta laguntzak eskatu.
  - c. Zereginak zerrendatu eta auzo lana antolatu.
  - d. Auzo lana burutu (asteburu batean egin beharrekoa, ikasleek eskola erabili behar dute eta).





**Azaroak 12 (7:15 – 21:00):**

- Pintura
  - Hormak garbitu eta lijatu, aguaplast eman
  - Hormak eta markoak pintatu



- Elektrizitatea
  - Ordenagailuentzako tomak tokiz aldatu
  - Ordenagailuentzako 2 toma berri (argindarra + sareko tomak) gazte eta helduen liburutegian jarri
  - Berogailuentzako toma 1 tokiz aldatu.



- Altzariak
  - Apalategi berriak muntatu
  - Apalategi zaharrak birkokatu eta muntatu
  - Ordenagailuentzako mahaia moztu eta muntatu
- Garbiketa :
  - Espazioa hustuta egon dela aprobetxatuz garbiketa sakona eman.
- Apaingarriak – tresnak
  - Ludotekarako alfonbra
  - Ordenagailu batendako pantaila
  - Jangelarako mahai bat



- Liburuak apalategietan kokatu



- Hamarretakoa, bazkaria, haurrentzako merienda eta afaria



## Lehen Hezkuntzako gela berrantolaketa eta margotze lanak

Irakasleekin bildu eta beharren identifikazioa egin ostean LHko gela margotzeko erabakia hartu da. Udalari eskaera egin ostean, ekonomikoki diru laguntzarik ez dela egongo jakinarazi zaigu. Aukera legoke langileek egiteko, baina zehaztu gabe noiz ... Aurreko ikasturteko esperientziaren ondoren, gurasook irakasleekin martxan jartzea erabaki dugu.

Udalarekin adostu dugu materiala beraiek eta eskolak (gurasoekin) eskulana jarriko duela.

Materiala eskuratu dugu eta orain auzolan eguna zehaztea dagokigu. Behin hori eginda, gela margotzeko prestatu eta margotze, garbitze eta berrantolatze lanak burutuko ditugu.

### Ondorioak:

#### HHko gela dagoen erabilera anitzeko gela egokitzea

Auzolana arrakastatsua izan da. Aste batean espazioa erabat aldatuta eta berrituta geratu da. Erabiltzaile guztiek oso positiboki baloratu dute aldaketa, baina, batez ere haurrek oso pozik hartu dute "gela berria".

Honetaz aparte, guraso elkartetik beste ondorio batzuk ere azpimarratu nahiko genituzke:

- Eskolako haur guztien familiakoren batek parte hartu du ekintza honetan, beraz inplikazio handia egon da, harremanak sendotzeko aukerak sortuz. Haurrentzat eredu positiboa dela baloratzen dugu.
- Asteburuan izandako lan honetan irakasle zein ludotekako hezitzailearen parte hartzea egotea, oso positiboki baloratzen dugu, berriz ere hezkuntza proiektu eta gure haurren heziketarekiko konpromisoa garbi ikusi dugulako. Haurrek hau ere ikusteko aukera izan dute.
- Gurasook eskolan eragiteko gaitasuna dugula ikusteko eta frogatzeko aukera izan dugu, baita proiektu bat diseinatu eta gauzatzeko ere.
- Zailtasun administratibo ekonomikoen aurrean beste alternatiba batzuk daudela eta guztion artean gauzak aurrera atera daitezkeela ikusteko aukera izan dugu.
- Hurrengo lan batzuetarako gogoia piztuta gelditu da.

### **Lehen Hezkuntzako gelako berrantolaketa eta margotze lanak**

Oraindik ez dugu gauzatu, beraz, gauzatu ondoren idatzi beharrekoa.

#### Aurrekontua:

### **HHko gela dagoen erabilera anitzeko gela egokitzea**

Proiektu honen kostua 2.247,14 eurokoa izan da.

### **Lehen Hezkuntzako gelako berrantolaketa eta margotze lanak**

|   |     |
|---|-----|
| -Auzo lana burutuko den eguneko bazkaria  | 100 |
| -Inprenta gastuak (kartelak, oharrak ...)   | 50  |
| -Margotze lanak burutzeko eskolak ez du aurreikusten gastu ekonomikorik, udalak jarriko du materiala. | 0   |

|                |            |
|----------------|------------|
| <b>GUZTIRA</b> | <b>150</b> |
|----------------|------------|

#### Diru iturriak:

### **HHko gela dagoen erabilera anitzeko gela egokitzea**

Aurrekontuko atalean zehaztutako zenbatekoaren erdia udalak asumitu du eta beste erdia guraso elkarteak (gabon eskeko dirua, lehiaketa desberdinetan aurkeztuta, ...) . Garbi daukagu auzo lana egin izan ez bagenu gastu hau askoz ere handiagoa litzatekeela.

### **Lehen Hezkuntzako gelako berrantolaketa eta margotze lanak**

Udalak jarriko du materiala eta beste gastuei aurre egiteko baliabideak Guraso Elkarteak bilatuko ditu.